

Gazteentzako Motibazio Saioak

Hartzaileak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasleak, batxilergoko ikasleak eta heziketa-zikloetakoak.
D nahiz B ereduan ikasten ari direnak.

Helburua

Hainbat jolasen, ariketen, dinamiken eta azalpenen bidez, ia ohartu gabe, erraz eta gogoz, euskaraz hitz egiteko eta euskara baliatzeko motiboez, zergatiez eta arrazoiez hausnartzea.

Iraupena

Sei orduko ikastaroak dira: 2 orduko 3 saio egiten dira.

Zenbateko taldeak

25 lagun taldeko, gehienez.

Edukia

Jolas eta dinamiken bidez, soziolinguistikako zenbait oinarri lantzen dira: hizkuntzen ekologia, hizkuntzen funtzioak, hizkuntzen transmisioa, euskararen erabilera tokian tokiko herrian, banakoaren hizkuntza-hautua...